

22.10 > 20H30

Eglise Sainte-Croix
Bayonne
Baiona

23.10 > 20H30

Salle Maule Baïtha
Mauléon-Licharre
Maule

24.10 > 17H00

Salle Bentaberri
Ispoure
Izpura

EUSKAL HERRIKO KOLOREA

Concert d'ouverture de saison

Sasoinaren idekitze kontzertua

Soliste violon : Guillaume Latour


Direction : Jean-François Rivest

P

S

IPARRALDEKO
ORKESTRA ORCHESTRE
SYMPHONIQUE DU
PAYS
BASQUE

B



Baiona, Maule eta Izpurako hiriekin partaidetzan.



Sortu zenetik lehenengo aldiz, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak musika denboraldiari hasiera emanen dio Ipar Euskal Herrian, Baionan, Maulen eta Izpuran eskainiko diren hiru kontzertuekin.

Ekitaldi honetarako, euskal eraginak azpimarratzen dituen programa sinfoniko bat prestatu nahi izan dugu. Honela, lurralde osoarekin dugun engaiamendu artistikoa aldarrikatu nahi dugu, publikoari beren orkestraren kolore sinfoniko ederrak hurbiltzeaz gain.

Obren aurkezpena

Julie Charles, kultura musikaleko irakaslea

Programaren diseinua

OSPB Kultura eta komunikazio zerbitzua

Orkestra teknikariak

OSPB Zerbitzu teknikoa

> ORKESTRA SINFONIKOA

Gure musika hautaketak euskal musikaren koloreen sorta zabala eskainiko die entzuleei, mendeetan zehar. Bidaia honek musika herrikoia eta musika aditua uztartuko ditu iraganeko eta gaur eguneko musikagile bikainen lan eklektikoak aurkeztuta.

Sinfonia klasikoa, musika tradizionaletan oinarrituriko lanak, musika garaikidea... programa anitza izanen dugu !

Juan Crisóstomo de Arriaga

Sinfonia ren

Adagio - Allegro vivace - Presto

Andante con moto

Minuetto - Allegro

Allegro con moto

Pablo de Sarasate

*Caprice Basque op.24 biolin eta
orkestrarako*

Peio Çaballette

*Diztirak : Ozeanoaren Hiru Ikuspegi
orkestrarako*

Igor Stravinsky

Pulcinella : Orkestrarako segida

Sinfonia

Serenata

Scherzino - Allegro - Andantino

Tarantella

Toccata

Gavotta con due variazioni

Vivo

Minuetto - Finale

Biolina : Guillaume Latour

Zuzendaritza : Jean-François Rivest

> PROGRAMIA

Juan Crisóstomo de Arriaga

Symphonie en ré

Juan Crisóstomo de Arriagari "Euskal Mozart" izengoitia eman zioten arras gaztetan hasi baitzen eta gazte hil baitzen ere. Musikagile emankor honek amaiera tragikoa izan zuen.

Bilbon sortu zen 1806. urtean eta Parisen hil zen 1826. urtean, hain segur tuberkulosiaren ondorioz, hogeitaz hamar urteak egin baino egun batzuk lehenago. Trebetasun aparta izanik, bederatzi urterekin hasi zen konposatzen. Bere *Les esclaves heureux* operak arrakasta izigarria izan zuen 1820. urtean Bilbon estreinatu zenetik. Ondoko urtean, Parisera igorri zuten Kontserbatorioan ikastera, Pierre Baillot (biolina) eta François-Joseph Fétisekin (harmonia eta kontrapuntua) batera. Ikaragarri azkar egin zuen aitzina ikaskuntzan. Hamazazpi urterekin Fétisen eskoletako irakasle laguntzaile izendatu zuten Arriaga Pariseko Kontserbatorioan.

Aldi berean, grinez ekin zion musikagintzari. Pariseko garai lanpetu horretan zehar konposatu zuen, seguruenik 1824. urtean, urte berekoak izanda bere hari instrumentuetarako hiru *Kuarteto* bikainak, bere lanik garrantzitsuenetako bat: *Sinfonia ren*. Baliteke bere egile gaztearen eraikuntzaren sena eta kontrapuntuaren menperatzea agertzen dituen anbizio handiko partitura hau Pariseko

Kontserbatorioan jo izana irakasle eta ikasleek osatutako orkestrak eskaintzen zituen kontzertuetan. Arriagaren heriotzaren ondotik ahaztua gelditu zen eta musikagilearen iloba ttipiak berreskuratu zuen 19. mende hondarrean. 1888. urtean jo zen lehen aldikotz jende aitzinean. Hala ere, 1950. urtea arte ez zen argitaratu.

Lau mugimenduko ohiko planaren arabera osatua, sinfonia sartze motel eta misteriotso batekin hasten da, re minorreko *Allegro bizi*, hunkigarri eta sutsu batera iritsi arte. Ondotik, *Andante* lasaia dator, lirikotasunez eta poesiaz betea, azentu schubertarrekin. Hirugarren mugimendua Scherzoren tankerako *Menuet* bat da. Bertan, erdialdeko zatiak, flauta nagusi den tonu bukolikoa duenak, kontrastea sortzen du sinkopeen kanpoko leihatila irmo, erritmiko eta beteekin. Azken mugimenduak hastapeneko mugimenduaren tonu dramatiko eta ekaiztsuarekin lotura ezartzen du berriz ere.



Pablo Sarasate

Caprice Basque op.24 pour violon et orchestre

Iruñan sortua 1844. urtean, Pablo de Sarasate bere garaiko biolinista ospetsuenetako bat izan zen. Miresmena piztu zuen Europa osoan eta harrera ezin hobia izan zuen Amerikan. Berarentzat idatzi ziren hainbat musika lan ezagun, besteak beste, Laloren *Symphonie espagnole*, Saint-Saënsen *Introduction et Rondo Capriccioso* edo Max Bruchena *Schottische Fantasie écossaise*. Kontzertulari ibilbidearekin batera, Sarasate konponsaketan ere aritu zen. Bere musika tresna nabarmentzeko helburu nagusiarekin, berrogeita hamar bat opus idatzi zituen: "pièce de salon" bikainak, opera lanen gaineko parafrasi birtuoso harrigarriak (*Carmen* buruzko fantasia), Europako doinu herrikoiek inspiratutako lanak (doinu buhameak, kanta errusiarak, jotak, zortzikoak...).

1881. urtean konposatu zuen *Caprice Basque* lanak ongi islatzen du biolinista eta musikagile nafarrak bere euskal sorterriarekin zuen lotura. Piezabakarbatez osatua, lan bikain eta birtuoso da, hura interpretatzen duen biolinistaren gaitasuna goraipatzeko helburua duena. Doinu herrikoietan oinarritzen da eta bi atal ditu:

lehenbizikoa, neurriko tempo duena, *zortzikoa* gogora dakarren erritmo setatsu baten gainean eraikitzen da (euskal dantza honen 5/8 neurrian idatzi ez bazuen ere). Bigarren atala gero eta konplexuagoak diren bariazioen multzo bat da, biolinaren aukera tekniko eta adierazpen bide guztiak arakatzen dituena: ezkerreko eskuko pizzicati, harmonikoak, hari bikoitzak eta hirukoitzak, arpeggio birtuosoak...

Jatorrian biolin eta pianoarentzat konposatu bazen ere, kontzertu honetan Marshall Finek egindako biolin eta orkestrarako moldaketa batekin interpretatuko da..

Diztirak : Ozeanoaren Hiru Ikuspegi orkestrarako

Pariseko Musika Kontserbatorio Nagusi Nazionalean ikasketak bururatu ondoren, Peio Çabalette bere euskalsustraietara itzuliz eta, bertan, musikagintza eta irakaskuntza jardura bizia garatu zuen. Bere musikak bilakaera handia izan zuen, hainbat genero

eta estilo arakatuta: concertoak, kantatak, operak, taldeentzako lanak, abeslari entzako lanak, antzerki edo irudietarako musika, ballet musika Thierry Malandain koreografoaren eskutik... Aldi berean, Peio Çaballettek musikagintza eta konposaketa teknikak irakatsi zituen, hogeita hamar urtez, Baionako Maurice Ravel Kontserbatorioan.

Diztirak Peio Çaballetteren eta Jon Casenave idazlearen Ilargi Xendera operaren bigarren ekitalditik ateratako orkestra suite bat da. Honaino gidatzen gaituzten xendrak, konpositorearen hitzetan, hiru momentutan, hiru ikuspegirekin, mundu urdin baterantz :

Eguna, pixkanaka, olatuen artetik sortzen da. Luka ezagutzen dugu - lanaren protagonista -, eta baita bere haserrea eta sufrimendua ere, arrantzalearen lanbide latzean.

Bigarren momentuan, grabitaterik gabe balego bezala, hustasunaren sentimendua agertzen da, oraingoan zorionekoa, naturako elementuei so egoteak dakarren ahaztea.

Azkenik, itsasoa harrotzen da, bere amorrua agertzen digu...

Era berean, trama narratibo horri jarraitu beharrean, soinu-zuko abentura batean murgildu gaitezke, mugimendu erritmikoen eta koloretako distiren edo musika tresnen tinbreen artean, guk sortutako irudiekin batera.

Diztirak estetika jakin baten isla da ere, 1996. urteko opera bat. Uren eta denboraren ozeano zabalean barna bidaiatzeko zenbait neurri

Pulcinella : Orkestrarako segida

1920. urtean Diaghileven Errusiar Balletak konpainiak sortutako ballet kantadunak, *Pulcinella*, norabide berria eman zion Stravinskyren pentsamendu musikalari. Pergolesiren (1710-1736) musika gai eta zatiak oinarri hartuta, ballet hau musikagilearen lehen lan neoklasikoa izan zen.

Horren inguruan, Stravinskyk adierazi zuen: *"Pulcinella izan zen niretzat iragana ezagutzea, nire ondorengo lan guziak posible egin zituen aurkikuntza"*. Ondoko hogeita hamar urteetan zehar, Stravinskyk bide horretatik jarraitu zuen: modu nekaezinean arakatu zuen musikaren historia, maileguan hartu zituen bere aurrekoen gaiak eta bere ukitu pertsonala eman zien harmoniari, erritmoari eta instrumentazioari dagokienez.

1922. urtean, Stravinskyk orkestrarako suite bat atera zuen, zortzi aletan, *Politxinela* napoliarren eta bere maitaleen istorioaren inguruko bere balletetik. Partitura ganbera orkestra baterako idatzi zen, 18. mendeko orkestra baten osaerari jarraitua: zura bikoiztuta klarineterik gabe, bi tronpa, tronpeta, tronboia eta hari instrumentuak bi taldetan banatua -*concertino* eta *ripieno*- garai barrokoko concerto grosso-an bezala. Beraz, kontzertu dimentsioa funtsezkoa da.

Stravinskyk Pergolesiren melodiak mantendu bazituen ere, harmonia eta erritmoa eraldatu egin zituen eta instrumentazioa berritik sortu zuen. Instrumentazio ausart horrek tinbre zapoetsu eta erabat berriak uztartzea proposatzendu: tronboiaren (*glissandi*) eta kontrabaxuaren umoredun aldarrikapena bi instrumentu hauek solista diren *Vivo*-an, *Serenata*-ko hari instrumentuen harmonika naturalak, *pizz* edo *jettato*-an, tronpen erabilera garbi eta originala...

Stravinskyren sormena argi ikusten da ere harmonian, disonantzia gehigarrien ukituarekin, eta baita erritmoaren tratamenduan ere, sinkopeez, lekualdatutako azentuez, ostinatoez eta neurri aldakorrez aberasten duena. Elementu hauek guziek itxura berria ematen diete Pergolesiren melodiei. Suite hau obertura -*Sinfonia*- batekin hasten da eta, haren ondotik, hainbat dantza datoz, gehienetan etenik gabe.

Orkestraren osaketa

Biolina : Guillaume Latour
Zuzendaritza : Jean-François Rivest

Marina Beheretche, Mileva Baranek, Delphine
Labandibar, Arnaud Bonnet,
Alyson Hottua, Leire Hipolito

I. Biolina

Arnaud Aguegaray, Patrick Prunel, Laura Prieu,
Olivier Parrot, Patricia Arnaud

II. Biolina

Sandrine Guedras, Aurélien Graiss, Frédéric Sorhaitz,
Cécile Danielou

Biola

Yves Bouillier, Emmanuelle Bacquet, Rachel Denis

Biolontxelo

Marin Béa, Louis Pensec

Kontrabaxua

Aude Guillevin, Sophie Bousquet

Flauta

Alain Remus, Claire Charrut

Oboea

Thierry Leroy, Genti Dollani

Klarineta

Eric Lenormand

Saxofoia

Joanna Pensec, Séverine Longueville

Fagota

Arnaud Guicher, Laurent Cherencq

Harmoniako adarra

David Rachet, Stéphane Goueytes

Tronpeta

Jérôme Capdepon, François Gonzalez,
Gérard Portellano

Tronboia

Julien Garin

Perkusioak

Frédéric Chambon

Tinbalak

Philippe De Ezcurra

Akordeoa

LE PETIT PRINCE

Musika ibilaldia izarretan

Azaroaren 13an, larunbatarekin > 17h
Quintaou Antzokian, Angelun

Azaroaren 14an, igandearekin > 17h
Quintaou Antzokian, Angelun

Informazio eta
Txarteldegia

05 59 31 21 78
www.ospb.eus

Urrango kontzertua

> ORKESTRA SINFONIKOA